



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

Ehuneko
ehun
gai

Gure erakundea



Desgaitasuna duten bizkaitarrei lan-aukera egokituak sortzen dizkien irabazi asmorik gabeko erakunde bat gara. Haiek gizarteratzea, ahalik eta gehien garatzea eta kalitatez bizitzea lortu nahi dugu.

3.000 lagunek baino gehiagok egiten dugu posible proiektu berezi hau:



Lurraldearen garapenean inplikatuta gaude; zentro eta zerbitzuen sare bat dugu, gure bezeroei eta pertsonei gertutasuna bermatzen diena eta, eskualde guztietan inklusioa eta gizarte-kohesio handiagoa emanez, Bizkaia egituratzen duena.

83
%
Desgaitasuna
duten pertsona


60
%
**Adimen
desgaitasuna**

74 MM€

Fakturazioa

82% Autofinantziaketa





Inklusioa

Erdigunean jartzen ditugu pertsonak, inklusiorako bide pertsonalizatu bat diseinatzuz; hala, orientazioan, prestakuntzan eta garapen sozioraborean laguntzen diegu, bai eta enplegu berezia nahiz arrunta eskuratu arte okupatuta egoten ere.

OKUPAZIOA

Zerbitzu edo zentro okupazionalak **inguru sozioraborel batean era aktiboan parte hartzen laguntzen du**, helburu izanik pertsonen garapena, autonomia pertsonala eta autodeterminazioa erraztea, eta gizartean gehiago baloratu eta onartzea bultzatuz.





Bezeroei eta pertsonen balioa ematen dieten konponbideak



Industriaren eta zerbitzuen sektoreetan daukagun eskaintza espezializatuari esker, gure bezeroen beharrak desgaitasuna duten pertsonentzako aukera bihurtzen ditugu.

Gurekin elkarlanean ari diren **enpresen** eta **erakundeen lehiakortasuna hobetzen laguntzen dugu**, haientzat garatzen ditugun konponbideetan eta zerbitzuetan balio sozial erantsia emanez.

Balio-kate osorako **konponbide espezifikoekin laguntzen** diegu enpresei, beraien beharretara egokituta dagoen eskaintza malgu baten bidez.

Gure konponbide profesionalek industria eta zerbitzu-jarduera sorta zabala betetzen dute, eta horietan esperientzia eta espezializazioa eskaintzen dugu.



Industrial



Industrialia

Bazkide industrial garen heinean, industria-zerbitzuak eta teknologia kanporatzearen bitartez sartzen gara gure bezeroen proiektuetan, haien balio-katean parte hartuz eta lehiakortasuna hobetzen lagunduz.

Erantzun integrala ematen diogu enpresari, bere behar zehatzei egokitutako konponbideak ematen dituen teknologia anitzen eskaintzaren bitartez.

Muntaia Elektromekanikoak

Konponbide integralak eta pertsonalizatuak ematea, muntaia mekaniko, elektriko eta elektromekanikoak diseinatu eta garatzeko.

- Muntaia mekaniko, elektriko eta elektromekanikoak
- Tanpografia
- Serigrafiatzea
- 3D inprimatzea
- Ultrasoinu bidez soldatzea
- Egiartzatzea eta birlantzea



- ISO 9001:2015 kalitate ziurtagiria
- IATF:2016 Automobilgintza arloko kalitate ziurtagiria
- ISO 14001:2015 Ingurumen arloko kudeaketa ziurtagiria
- OHSAS 18001:2007 Laneko Osasun eta Segurtasun ziurtagiria



Transformazio Metalikoa

Hainbat material fabrikatu, mekanizatzea eta laguntza teknikoa ematea.


- Zerraz ebakitzea
- Puntzonatzea
- Estanpatzea
- Tolestea
- Kurbatzea
- CNC mekanizatua, torneaketa bidez
- CNC mekanizatua, fresaketa bidez
- Soldatzea
- Mekanizatu osagarriak
- Azalerako tratamenduak kudeatzea



Elektronika

Zirkuitu elektronikoak diseinatu, ekoitzi eta muntatzea, eta horri buruzko aholkularitza.

- Temperatura eta hezetasuna kontrolatzen dituzten biltegiak
- SMD eta THT teknologiak
- Test in circuits & Functional test
- Tropikalizatzeko selektiboa
- Soldatze selektiboa, errefusiokoa eta olatu bidezkoa
- Reworks eta eskuz soldatzea
- Laser bidez markatzea
- AOI 3D eta X izpien bidez ikuskatzea



Kableatua

Kableak, kable sortak eta tutuak diseinatu, prototipatu eta industrializatzeko laguntza teknikoa ematea:

- Kable sortak automatikoki fabrikatzea eta konektoreak monitorizazio-sistema integratuen bidez txertatzea
- Kableatua neurri industrialetan eta berezietan fabrikatzea, hainbat sektoretan aplikatzeko
- Kable, kable sorta eta tutuetarako seinalizazio-sistema integratuak
- Kalitatea kontrolatzeko sistema automatikoa



Konponbide logistikoak

Bezero bakoitzari egokitutako konponbide logistikoen zerbitzua diseinatu eta ezartzea:

- Biltegi logistikoa
- In plant biltegietako logistika
- Pick to light
- Packaginga, erretraktilatzea eta biltzea
- Manipulatuak
- Kitak muntatzea
- RFID, FIFO eta FEFO sistemak



Gure ekoizpen-zentroen saretik, bikaintasun operazionalaren eta industria-prozesuen etengabeko hobekuntzaren alde egiten dugu. Horretarako, gure bezeroari ematen diogun zerbitzua etengabeko diren kudeaketa konponbideak ezartzen ditugu.

Gure industria-prozesu guztiek kalitate-irizpiderik zorrotzenak betetzen dituzte; eta, era berean, egokituta daude, desgaitasuna duten, prestatuta dauden eta gai diren pertsonen ondo baino hobeto gara ditzaten.

**Konponbide
multiteknologikoak**



Zerbitzuak

Lantegi Batuak enpresa eta erakunde publikoen beharretara egokituta dauden zerbitzuen eskaintza zabala du.

Kontratazio arduratsua eta inklusiboa eskaintzen diegu bezeroei, beraien esku jarrita kudeaketa espezializaturako dugun gaitasuna eta gure zerbitzuen efikazia.



- ISO 9001:2015 kalitate ziurtagiria
- ISO 14001:2015 Ingurumen arloko kudeaketa ziurtagiria
- OHSAS 18001:2007 Laneko Osasun eta Segurtasun ziurtagiria
- Estatu eta erkidego mailako administrazioarekiko kontratisten kalifikazioa
- Gizon eta emakumeen aukera berdintasun arloan Emakunderekin lan egiten duen erakunde laguntzailea.
- Eusko Jaurlaritzak "Gizarte intereseko erakunde" izendatua



Gure bezeroen neurrira eginiko konponbideak eskaintzen ditugu, arlo hauetan: garbiketa, lorezaintza, dokumentuen kudeaketa, vendinga, etxez etxeko janari-zerbitzua, ostalaritza eta beste zerbitzu osagarri batzuk. Behar bakoitzera egokitzen gara, eta, hala, balio erantsi gehigarria eskaintzen dugu.



Garbiketa

Espazio publikoetan, instalazio industrialetan nahiz hiriko bideetan jarduten duten **askotariko sektoretan** eskaintzen dugu **garbiketa-zerbitzua**.





Lorezaintza eta ingurumena

Berdeguneen kudeaketa integrala, gai izanik instalazioetako zein hiriguneetako behar berezietara egokitzeke.



11
Lantegi Batuak

Neurrira eginiko zerbitzu gehiago:

Gure malgutasunari eta esperientziari esker, bezeroaren beharretara egokitu gaitezke, konponbide hauek gauzatuz, besteak beste: postontzietan banatzeko zerbitzua, garraioa eta posta, ibilgailuen garbiketa ekologikoa, harrera, zerbitzuguneak, ostalaritza eta ostatu kudeaketa eta mugikortasunerako eta autonomia pertsonalerako laguntza teknikoak alokatu eta saltzea.

Dokumentuen kudeaketa

Arlo hauetan espezializatuta gaude: **dokumentuak digitalizatzea**, negozioetarako **zerbitzu operazionalak** kanpoan kontratatzea (BPO), artxibo fisikoak **zaintzea** eta dokumentuak suntsitzea, **egiaztatua eta jasangarria**.

Vendinga

Produktuen **sorta zabala eta anitza** betetzen dugu; besteak beste, elikagaiak, edariak eta babes indibidualerako ekipoa (BIE).

Sozialki arduratsua den era batean erosi, manipulatu eta garraiatzen ditugu produktuak, bai eta biltegia kudeatu ere.



Etxean janaria banatzeko zerbitzua

Menua **orekatua, kalitate gorenekoa** eta eroso da, eta berotzeko prest dago.

Erretilu indibidualetan bidaltzen dugu janaria, eta higiena eta kontserbazioa bermatzen ditugu.



Konponbide integralak



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

www.lantegibatuak.eus

[@lantegibatuak](https://twitter.com/lantegibatuak)

